

Jakoba Errekondo

• ZERAIN DEZAGUN FUNDAZIOKO KUDEATZAILEA •

■ ■ ■ Ondare historikoak eta turismoak landa eremuen garapenean duten eragina aztertzeko nazioarteko jardunaldiak egin dituzte hiru egunez Zerainen (Gipuzkoa). ■ ■ ■ Jardunaldiak atzo bukatu ziren, eta Jakoba Errekondo Zerain Dezagun Fundazioko kudeatzaileak balorazio ezin baikorragoa egin du, espero zutena baino jende gehiagok parte hartu duelako, eta oso esperientzia ezberdinen berri jakin ahal izan dutelako.

«Herri txiki bakoitzak asmatu behar du bere eredua aurrera egiteko»

■ Zer moduz joan dira jardunaldiak?


Oso ondo. Jende asko etorri da, eta oso gustura geratu dira. Guk oso balantze positiboa egiten dugu, 85 bat pertsonak parte hartu dutelako. Horrez gain, gonbidatuak izan dira, eta herriko jendea ere ari da hitzaldiak jarraitzen. Jendea Euskal Herri osotik etorri da, baina batez ere gipuzkoarrak izan dira.

■ Zein da jardunaldien helburua?

Pentsatu genuen interesgarria izan zitekeela herri txikiak biziberritzeko ahalegina egin duten Europako hainbat adibide ekartzea, jendeak jakiteko zer eredu dauden ondarea eta turismoa kudeatzeko, irtenbide ezberdinak topatu direlako tokian tokian aurrera egiteko, eta horren berri jakitea interesgarria iruditu zitzaigun.

■ Europa osoko adibideak ikusi dituzue. Ba al dago European herrialderen bat aintzindari dena?

Nik uste dut kontu honetan gehien nabarmentzen dena Espainia dela, eta guk ekarri ditugun adibideak hangoak dira: Teruel, Andaluzia, Bartzelona, Extremadura... Portugal bera ere bai.



MANU MUJICA

Beraz, uste dut adibiderik onenak urrutira joan gabe ditugula.

■ Zerain Reveil Europako proiektu bateko partaidea. Zer da proiektu hori?

Reveil dira garapenerako fondoak deiturikoak, eta,

horren barruan, European erabaki zuten diruaren %1 proiektuetara bideratzea zuzenean. Guk aurkeztu genuen proiektu bat kulturaren oinarritutako atalean. Guk, Greziako Xanthi herriak eta Frantziako Dordõna

eskualdeak bagenituen ondare indutrialak, eta planteatu genuen haiek zaharberritzea turismorako eta lanpostuak sortzeko. Onartu ziguten proposamena, eta Aizpeako meategiak hasi gara zaharberritzen.

■ Zerainen kasuan ondare kultural-industrial horien berritzeak ekarri al du herria berpiztea?

Beno, Aizpeakoa azken proiektua izan da, baina urteak daramatzagu beste proiektu batzuetan: museo etnografikoa, diaporama, XVIII. mendeko kartzela, San Blas ermita arte mozarabiarra duena... Meategien proiektua handia da, trenak baitaude, galeriak, teleferikoak... Horregatik, beldur pika bat ematen zigun, baina erabaki dugu hurrengo urteotan horri aurre egitea. Baina, beno, aurretik esperientzia izan dugu, eta iaz jada 20.000 bisitari izan genituen.

■ Horrek eragina izango zuen herriko bizimodu, ezta?

Bai, dudarik gabe. Eskola berreskuratu da, liburutegia ireki da, eskola garraioa bermatzen da erabat udaletxetik, medikua egunero dugu... Hiru bide ari gara lantzen:

Zerain

«Zerainek eredu bat sortu du, eta hori inportantea da, baina nire ustez Zerainek aportatzen duen inportanteena ez da zer egiten duen, baizik eta nola egiten duen; alegia, eguneratutako auzolanean»

bizitza kalitatea, udalak eramaten duena; dinamika sozialaren trinkotzea, kultur elkarteak egiten duena; eta, hirugarrenik, garapen ekonomikoa bermatzea, Zerain Dezagun fundazioaren esku dagoena. Beraz, proiektua turismoari lotutako zerbait baino askoz zabalagoa da.

■ Beraz, turismoak ez du ekartzen derrigorrez baserriaren galera?

Segun eta nola planteatzen den kudeaketa. Guk hasieratik garbi genuen turismoa bultzatzen bagenuen izan behar zuela gure baserrietako produktuak saltzeko, inguruko artisauen produktuak saltzeko... Horregatik, turismo bulegoan gure baserrietako produktuak daude, eta hori da turistak ikusten duen lehen gauza. Hori da gakoa bi sektoreak elkarrekin joateko.

■ Zeraingo ereduak jakin-mina piztu al du beste herri txikietan?

Bai, azken urteotan 100 bat bisita izan ditugu era horretakoak, Nafarroatik, Bizkaitik, Zuberoatik, Gipuzkoatik zer esanik ez... Bada jakin-mina gure ereduarekiko, baina ez da bakarra. Hor dago Oresako adibidea ere. Hor planteatu dute gazta egitera dedikatzea, eta horrela kooperatiba sortu dute, eta hortik bizi dira. Inportanteena da gizatalde bakoitzak erabakitzea zer egin behar duen, eta proiektuak ez daitezela paraxutean erori. Baina, beno, gutxi edo gehiago, Zerainen eredu bat sortu dugu, eta interesgarria da, baina bakoitzak berea sortu behar du. Niretzat Zerainek aportatzen duen inportanteena ez da zer egiten duen, baizik eta nola egiten duen: eguneratutako auzolanean.

Iñaki Petxarroman

DONOSTIA